



EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK ONESTEN BAITIRA ETA ORIENTAZIO DEPARTAMENTURAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIAREN PLAZA MUGAGABE BATEN KANPOKO DEIALDI BIDEZKO HAUTAKETA PROZESURAKO DEIALDIA EGITEN BAITA

Orientazio Departamentua indartzeko beharra antzeman denez, beharrezkoa da, Orientazio Departamentuan, Giza Baliabideen eta Orientazioaren Arloari atxikitako goi-mailako teknikariaren plaza mugagabe bat sortzeko hautaketa prozesua hastea, kanpoko deialdian, barneko deialdia hutsik geratu baita.

Goi mailako teknikariaren plazako eginkizunak, erantzukizunak eta bertara sartzeko sistema Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 29ko bilkuran onetsitako lanpostuen deskribapen eta balorazio memorian eta ebazpen honekin batera doazen oinarrietan jasotakoak dira.

Langile publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak kasuan kasuko hautaketa prozesua irekitzea ezartzen du. Haren bidez bermatuko beharko dira, besteak beste, deialdiaren eta haren oinarrien publikotasun printzipioak; hautaketa organoetako kideen gardentasuna, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna; hautaketa organoen jarduketaren independentzia eta diskrezionalitate teknikoa, hautaketa prozesuen edukiaren eta garatzeko eginkizun edo egitekoen arteko egokitzapena, eta arintasuna, betiere objektibotasunari kalterik egin gabe.

Horregatik guztiatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Oinarri orokorrak eta espezifikoak onestea, bai eta hautaketa prozesua arautuko duten eranskinak ere, Giza Baliabideen eta Orientazioaren Arloko goi mailako teknikariaren plaza mugagabe bat kanpoko deialdi bidez betetzeko, eta, kasua bada, dagokion lan poltsa sortzeko.



BIGARRENA.- Onespena ematea barneko hautaketa prozesuaren deialdiari, aipatutako plazan sartzeko. Bestalde, eskaerak eta agiriak aurkezteko epea oinarri orokorretan adierazitakoa izango da.

HIRUGARRENA.- Aurreko xedapenean adierazitako hautaketa prozesuko hautaketa organoa izendatzea:

A. Hautaketa organoaren osaera:

- Lehendakaria: Indesa 2010 SLko giza baliabideen eta orientabidearen zuzendaria edo haren ordezkaria.
- Bokala: Indesa 2010 SLko finantza zuzendaria edo haren ordezkaria.
- Bokala: Indesa 2010 SLko orientazio teknikaria edo haren ordezkaria.

B. Idazkaria:

Hautaketa organoko idazkaria Indesa 2010 SLko idazkari kontuhartzailea izango da, edo haren ordezkaria. Ez du botorik izango.

C. Batzordearen ordezkariak

Enpresa batzordearen ordezkari bat egon daiteke, hitzarekin baina botorik gabe.

LAUGARRENA.- Ebazpen hau argitaratzea korporazioaren web orrian, lantokietako iragarki tauletan, eta ebazpen honen jakinarazpena bidaltzea enpresa batzordeari.

Gasteiz,

Sin. Ander Eguidazu Aldalur
INDESA 2010 SLko zuzendari-kudeatzailea

OINARRI ARAUTZAILEAK, ORIENTAZIO DEPARTAMENTURAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIAREN PLAZA MUGAGABE BAT BETETZEKO KANPOKO DEIALDIARENAK

OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA.- ARAU OROKORRAK

1.1- Oinarri orokor eta oinarri espezifiko hauen xedea arauak ezartzea da sozietatearen Giza Baliabideen eta Orientazioaren Arloan, Orientazio Departamentuko goi mailako teknikariaren lanpostu mugagabe bat betetzeko hautaketa prozesurako, hori guztia Indesa 2010 SLren hitzarmen kolektiboan eta sozietatearen lanpostua deskribatu eta baloratzeko memorian aurreikusitakoaren arabera.

Zerrenda hori zabaldu ahal izango da hautaketa prozesua amaitu baino lehen lanpostu hutsak sortzen badira eta, betiere, berariaz onesten bada hautaketa prozesu honen xede diren lanpostuak zabaltea.

1.2- Probei deialdi honetan oro har ezarritakoa aplikatuko zaie. Hautaketa sistema, txanda, baldintza espezifikoak, hautaketa proba, puntuazioak eta gainerako arau partikularrak oinarri hauetan jasotzen den hautaketa prozesua arautzen duten oinarri espezifikoaren arabera arautuko dira.

1.3- Halaber, deialdi honen xedea da, hala badagokio, deitutako lanposturako (Orientazio Departamentuko goi mailako teknikaria) lan poltsa bat sortzea, enpresan sor daitezkeen aldi baterako beharrak betetze aldera.

Gainditu eta lanposturik lortu ez duten izangaien zerrenda batekin osatuko du lan poltsa hori, hautaketa prozesu osoan lortutako nota handienetik txikienera ordenatuta.

1.4- Deialdiaren oinarri hauen arabera, nahitaezko eta baztertzeko probak gainditu ez dituzten izangaiak ezin izango dituzte behin betiko bete deitutako plazarako ezarritako baldintzak.

1.5- Prozesuak, gutxienez % 33ko desgaitasun maila baloratuko du hala egiaztatutako izangaiengan.

1.6- Hautaketa prozesu honen jakinarazpen guztiak Indesa 2010 SLren web orriko enplegu atalaren bidez egingo dira (<https://www.indesa.eus/eu/enplegua>); nolahi ere, modu ez-loteslean, informazioa bidaliko da partaidetza eskabidean adierazten den posta elektronikora.

BIGARRENA.- HAUTAGAIEN BALDINTZAK.

2.1- Psikologiako lizentziatura edo gradua izan beharko du, edo, bestela, hura izapidetzeko eskubideak ordainduta izan beharko ditu.

2.2- Gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatu beharko du lanbide orientazioko lanetan.

2.3- B motako gidabaimena duela egiaztatu beharko du.

2.4- Ez ditu izan behar kasuan kasuko eginkizunak egitearekin bateragarriak ez diren osasun arazoak. Horrela, jatorrizko lanpostuaren eginkizunekin bat ez badatoz, nahitaezkoa izango da osasun azterketa egitea.

2.5-Ez egotea inongo administrazio publikotako edo Euskal Sektore Publikoko sozietate publikoetako zerbitzutik diziplina espediente bidez bereizita, ezta eginkizun publikoak betetzeko irmoki gaitasun gabetuta ere.

Nahitaezko baldintza guztiak eta aurkeztu beharreko merezimenduak oinarri hauek argitaratu aurreko egunean eduki beharko dira.

HIRUGARRENA.- ESKAERAK

3.1.- Barne prozesuan parte hartu nahi dutenek 0 eranskineko eskabidean adierazi beharko dute hori, eta hemen aurkeztu beharko dute:

1- Indesa 2010 SL sozietatearen egoitza nagusia (Alaba Jeneralaren kalea 10, 5. solairua, 01005 Vitoria-Gasteiz), 08:00etatik 15:00etara.

2- indesaprocesoselectivo@araba.eus. Erreferentzia gisa hau jarriko da: Orientazio Departamentuko goi mailako teknikaria.

Hautaketa prozesuan ez dira onartuko nahitaezko prestakuntza edo baliokidea egiaztatzen ez duten hautagaiak. Eskabidearekin batera, jatorrizko agiri hauek eta haien kopiak —Indesa 2010 SLko Giza Baliabideen Departamentuak konpultsatuko ditu— aurkeztu beharko dira nahitaez:

- Eskabidea aurkezten den egunean indarrean dagoen NANaren fotokopia.
- Gidabaimena.
- Titulazioaren eta eskatutako baldintzen egiaztapena: Psikologiako lizentziatura edo gradua.
- Hautagaiak deitutako plazarekin zerikusia duten lanpostuetan izandako esperientziaren egiaztagiria. Horrez gain, agiri hauek ere nahitaez aurkeztu beharko dituzte:
 - Curriculum vitae.
 - Lan bizitzaren agiri eguneratua (gehienez 3 hilabeteko antzinatasuna).
 - Lan kontratuak.
- Kasua bada, gutxienez % 33ko desgaitasuna onartuta duela dioen egiaztagiria.
- Baloratu beharreko merezimenduen egiaztagiria. Merezimenduen dokumentuak egiaztatzeko, jatorrizkoak eta haien kopiak aurkeztuko dira; Indesa 2010 SL enpresaren Giza Baliabideen Departamentuak konpultsatuko ditu kopiak. Nahitaezko eta baztertzeko ariketak gainditu dituzten izangaien kasuan bakarrik baloratuko dira merezimenduak.

Autonomoen araubideko altarekin ez da beharrezko esperientzia egiaztatuko; harekin batera, egindako lanen enpresa hartzaileek emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, lanen edukia eta iraupena zehaztuta.

Eskaera mezu elektronikoz bidaliz gero, hautaketa prozesuko lehenengo proba egin aurretik,

5 egun balioduneko epea emango zaie onartutako pertsoneri arestian adierazitako dokumentazioaren jatorrizko aleak aurkez ditzaten. Epe barruan eta zuzen egin ezean, hautagaitza ezetsiko da.

Posta elektronikoz jasotzen diren hautagaitzek, aurkeztutzat jotzeko, lan bizi, NANaren fotokopia eta eskabide betea izan beharko dituzte; bestela, ez dira aurkeztutzat hartuko eta ez da zuzenketarik eskatuko.

3.2.- Eskabideak aurkezteko epea 2025eko abenduaren 23an hasi eta 2026ko urtarrilaren 20ko 12:00etan amaituko da.

3.3.- Hautaketa organoak inola ere ezin izango ditu baloratu aurkezteko ezarritako epean edo hautagaitza aurkezteko unean behar bezala alegatu eta egiaztatu ez diren merezimenduak.

Ez da baloratuko inola ere merezimendu bezala baldintza gisa ezarri dena edo eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren aurkeztu dena.

3.4.- Hautaketa prozesuan parte hartzea borondatezkoa da, eta parte hartuz gero, datu pertsonalak tratatzeko, eta hala badagokio, proba psikoteknikoak, nortasun probak edo elkarrizketa egiteko baimena emango da.

Eskabidea aurkeztean eskatzaileak berariaz adieraziko du ados dagoela datu pertsonalak tratatzearekin, hautaketa prozesuaren helburuetarako.

LAUGARRENA.- IZANGAIK ONARTZEA.

4.1.- Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Giza Baliabideen Zuzendaritzak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda egingo du, eta hautaketa prozesuko parte hartzaileei eta hautaketa organoari jakinaraziko die. Parte hartzaileek bost egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko eta, hala badagokio, zuzen daitezkeen akatsak edo okerrak zuzentzeko.

Sozietatearen webgunean informazioa argitaratzeak hautagaien jakinarazpen pertsonalaren ondore berberak izango ditu.

4.2.- Erreklamazioetarako epea igarotakoan, izangaien behin-behineko zerrenda eta egindako erreklamazioak jakinaraziko dira, hautaketa organoak behin betiko onets edo ebatz dezan.

BOSGARRENA.- HAUTAKETA ORGANOA

5.1.- Deialdi honetarako hautaketa organo bat eratuko da. Hautaketa Organoko kideei Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako abstentzio eta errekusazio kasuak aplikatuko zaizkie.

5.2.- Hautaketa organoak probak egiteko jasotako ordena aldatzeko eskubidea izango du. Horrela, proba bat baino gehiago egun berean egin daitezela ezartzeko eskumena izango du.

5.3.- Hautaketa organoaren kideen izen zerrenda deialdiarekin batera argitaratuko da.

5.4.- Hautaketa organoaren jarduketa baliozkoa izateko, boto eskubidea duten kideen gehiengo bertaratu beharko da, baita lehendakaria eta idazkaria ere. Erabakiak hartzeko, hautaketa organotik bertarutzen diren kideen gehiengoaren aldeko botoa beharko da, eta berdinketa egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoak ebatziko du.

5.5.- Hautaketa organoak erabateko autonomia funtzionala izango du, eta prozeduraren ordena egokia eta legezotasuna zainduko ditu. Era berean, sortzen diren zalantzak argitzeko baimena izango du. Horrez gain, prozesuan zehar sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko erabakiak hartu ahal izango ditu. Oinarri orokorren edo espezifikoen edukia interpretatu ahaliko du.

5.6.- Hautaketa organoko lehendakariak neurri egokiak hartuko ditu hautaketa faseko ariketak, idatziz egiten direnak, izangaien nortasuna jakin gabe zuzenduko direla bermatzeko.

5.7.- Hautaketa prozesua egin ondoren, hautaketa organoak gainditu dituzten lanpostuetarako izangaien zerrenda egingo du, eta, horretarako, diskriminazio positiboko irizpide hauek aplikatuko ditu, lanpostuen lehentasun ordena zehazteko:

a) Berdinketa gertatzen bada, gutxienez % 33ko desgaitasuna onartuta duten izangaiei emango zaie lehentasuna lanposturako, eta haien artean, emakumeak lehenetsiko dira.

b) Berdinketa gertatzen bada, eta gainditu eta berdinketa izan duen desgaiturik ez badago, emakumeek izango dute lehentasuna.

5.8.- Nolanahi ere, 6 hilabeteko probaldia izango du lanpostuak. Probaldi horretan zehar izangaiek zein enpresak uko egin ahalko dute, eta halakoetan ez dute izango kalte ordaina kobratzeko eskubiderik; lan egindako egunak bakarrik ordainduko dira.

5.9.- Hala ere, zuzendari-kudeatzailearen ustez hautatutako pertsonak ez badu gainditzen ezarritako probaldia, puntuaziorik handiena lortu duen gainditutako bigarren izangaiaari esleitu ahalko zaio lanpostua. Ez badago, hirugarrenari, eta horrela hurrenez hurren.

5.10.- Probaldia apartatu hauek baloratuta ebaluatu eta kalifikatuko da:

- Ekimena
- Egitekoak eta eginbeharrak betetzea
- Lanaren kalitatea
- Antolatze gaitasuna
- Ikasteko jokoak
- Talde lana eta elkarlanerako jokoak
- Arazoak konpontzea
- Barneko eta kanpoko harremanak.
- Emozioen kudeaketa

SEIGARRENA. - PROBEN NONDIK NORAKOA.

6.1- Deialdi bakarra egingo da izangaientzat, eta agertzen ez direnak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira. Ariketa bakoitzera indarreko NANarekin edo gidabaimenarekin joan beharko dira.

6.2.- Ariketak non eta noiz izango diren jakinaraziko zaie izangaiei.

6.3.- Proba bakoitzaren emaitzak argitaratzen direnean, automatikoki 3 egun balioduneko epea irekiko da alegazioak aurkezteko. Epe hori eta alegazioen behin-behineko emaitzak behar bezala argitaratuko dira.

6.4.- Hautaketa organoak Indesa 2010 SLko kanpoko langileengana jo ahal izango du proba batzuk baloratu eta egiteko.

ZAZPIGARRENA. - KALIFIKAZIOAK ARGITARATZEA.

7.1- Hautaketa fasea gainditu dutenen behin-behineko kalifikazioak sozietatearen egoitzan (Alaba Jeneralaren kalea 10, 5. solairua, 01005 Vitoria-Gasteiz) eta Indesa 2010 SLren web orrian argitaratuko dira, eta hautaketa prozesuaren parte hartzaileei jakinaraziko zaie.

Sozietatearen web orrian argitaratzeak hautagaiei egindako jakinarazpen pertsonalaren ondore berberak izango ditu.

7.2.- Hiru (3) egun balioduneko epea irekiko da merezimendu eta ezagutza fasean lortutako kalifikazioen arabera, eta 5.7. oinarrian adierazitako diskriminazio irizpideak aplikatu eta gero, hautatutako pertsonen behin-behineko zerrendaren aurkako alegazioak aurkezteko. Horrela, behin ebatzita eta banan-banan jakinarazita, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko da 5.7. oinarrian ezarritako moduan.

7.3.- Indesa 2010 SL enpresak lan poltsatik kontratatzeke eskubidea izango du, beharren arabera, deitutako lanpostuan sortzen diren aldi baterako beharrak betetzeko hautaketa prozesu hau amaitzen denetik lanpostu mota bererako deitzen den hurrengo hautaketa prozesua behin betiko ebazten den arte.

ZORTZIGARRENA. - KONTRATATZEKO PROPOSAMENA.

8.1.- Izangaiak aurreko klausulan adierazitakoaren arabera plaza hautatu ondoren, hautaketa organoak, Orientazio Departamentuko goi mailako teknikariaren lanposturako izangaiaren kontratazio proposamena helaraziko dio Indesa 2010 SLko Zuzendaritza-Kudeatzaitzari, hautaketa-prozesua gainditu duten hautagaien zerrendako lehentasun ordenaren arabera, 5.7. oinarriko diskriminazio irizpideak aplikatuta eta eskainitako plaza guztiak bete arte.

8.2.- Indesa 2010 SLko Zuzendaritza-Kudeatzaitzak deitutako plazei dagokien lan kontratua sinatzeko eskumena izango du.

8.3.- Hala ere, kontratua sinatu baino lehen, nahitaezkoa izango da enpresako Zerbitzu Medikua osasun azterketa egitea eta lanpostua beteko duena gai ote den adieraztea.

Medikuaren txostena aldekoa ez bada, hautaketa organoak lanpostua betetzeko beste proposamen bat egingo dio Indesa 2010 SLko Zuzendaritza-Kudeatzaitzari, zehazki, plazarik lortu ez dutenen zerrendako hurrengo hautagaia proposatuko dio, eta horrela hurrenez hurren.

BEDERATZIGARRENA. - LAN BALDINTZAK.

Lanpostua lortzen duen pertsonak lanpostuaren berezko lanaldia, lan baldintzak eta eginkizunak izango ditu (II. eranskina), bai eta Indesa 2010 SLren hitzarmen kolektiboa ere.

INDESA 2010 SLko zuzendari-kudeatzailea

Sin.- Ander Eguidazu Aldalur

Gasteiz, 2025eko abenduaren 22(a).

OINARRI ESPEZIFIKOAK

SARBIDE SISTEMA - HAUTAKETA PROZESUA.

Hautaketa merezimenduen fasearen eta ezagutzen fasearen bidez egingo da.

A.- MEREZIMENDUEN FASEA.

Ez da baloratuko inola ere merezimendu bezala baldintza gisa ezarri dena. Hautagaitzak aurkezteko epea hasi aurreko egunean dituzten merezimenduak bakarrik balioetsiko dira. Merezimenduak baloratzeko fasean hautagaitza bakarra egonez gero, ez dira baloratuko, eraginkortasun eta efizientziagatik.

Merezimenduen fasean, gehienez, 60 puntu emango dira, apartatu hauen arabera:

1. Indesa 2010 SLn zein Indesa 2010 SLtik kanpo deitutako plazen antzeko eginkizunak izan dituzten lanpostuetan egindako lana:

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 20 puntu.

Lanpostuan emandako hilabete oso bakoitzeko puntu 1 emango da, urtebeteko esperientziatik aurrera zenbatuta; izan ere, ezinbesteko betekizuna da lortu nahi den lanpostuaren eginkizunen antzeko lanpostuetan.

- a. Indesa 2010etik kanpo egindako lana
Izangaiek deitutako lanpostuarekin loturiko lanpostuetan izandako esperientzia egiaztatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte nahitaez:
 - Curriculum vitae.
 - Sinatutako lan kontratuak.
 - Lan bizitzaren agiri eguneratua.
 - Deitutako lanpostuaren antzeko lana egin duen enpresen ziurtagiria.
- b. b. Indesa 2010en egindako lana. (Ez da beharrezkoa esperientzia egiaztatzea).

Lanpostuan aldi baterako lanpostuz aldatuz gero, zenbatzeko baldintza 6 hilabetekoa izango da gehienez.

2. Esperientzia taldeak kudeatzen eta zuzentzen

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 6 puntu.

- 3 urteko esperientzia, lantaldeen zuzeneko arduradun gisa: 2 puntu
- 5 urteko esperientzia, lantaldeen zuzeneko arduradun gisa: 4 puntu
- 5 urtetik gorako esperientzia, lantaldeen zuzeneko arduradun gisa: 6 puntu.

Zerbitzuen enpresa hartzaileek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira; iraupena, eginkizunak eta erantzukizunak egiaztatuko dituzte.

3. Lanaren eta Erakundeen Psikologiako Masterra: 5 puntu
4. Lanbide orientazioko edo coachingeko ziurtagiria: 5 puntu
5. Zeinu hizkuntzaren ezaqutza

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 4 puntu.

- Komunikazio bitartekotzako goi mailako teknikaria: 4 puntu.
- Hizkuntzen irakaskuntzako Europako Esparru Bateratuaren arabera B2 mailakoa edo goragokoa den ikastaroa: 2 puntu.
- Hizkuntzen irakaskuntzako Europako Esparru Bateratuaren arabera B1 mailakoa edo goragokoa den ikastaroa: 1 puntu.

Ez dira baloratuko arestian deskribatutako kategorietan sartzen ez diren ikastaroak, horien iraupena edozein dela ere.

6. Lanpostuaren edukiarekin zuzenean lotutako titulazio eta/edo prestakuntza osagarria:

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 10 puntu.

Lanpostuaren edukiarekin zuzenean lotuta dauden prestakuntza osagarriko edo hobekuntzako jarduerak eta ikastaroak, onartzeko baldintzatzat hartzen ez badira.

- 30 ordu edo gehiago eta 60 ordu arteko iraupena duten ikastaroak: 1 puntu ikastaro bakoitzeko.
- 60 ordu edo gehiago eta 100 ordu arteko iraupena duten ikastaroak: 2 puntu ikastaro bakoitzeko.
- 100 ordu edo gehiagoko iraupena duten ikastaroak: 5 puntu ikastaro bakoitzeko.

Ikastaroen ziurtagirietan ordu kopurua zehaztu beharko da; bestela, ez dira balioetsiko.

7. Diruz lagundutako gizarteratze eta laneratze proiektuetako partaidetza: 2 puntu
Erakundeen jatorrizko ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, proiektua diruz lagundu duen erakundea edo administrazioa eta proiektuaren iraupena zehaztuta.

8. Test psikometrikoen eta moldatze trebetasunen eskalen bidez ebaluatzeko gaitasuna: 4 puntu

9. Euskararen ezaqutza:

Lor daitekeen gehieneko puntuazioa: 4 puntu.

- 4. hizkuntza-eskakizuna edo baliokideak: 4 puntu.
- 3. hizkuntza-eskakizuna edo baliokideak: 3 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna edo baliokideak: 2 puntu.
- 1. hizkuntza-eskakizuna edo baliokideak: 1 puntu.

B.- EZAGUTZEN FASEA.

Oposizioaldiak, gehienez, 70 puntu izango ditu, apartatu hauen arabera:

1. Lehen ariketa

Nahitaezko eta baztertze ariketa izango da izangai guztientzat.

Proba teoriko bat eta proba praktiko bat izango dira. Idatzizko erantzunak eman beharko dira eta/edo jardueraren garapen arlorako ezaqutza eta trebetasunetara egokituko diren zereginak egin beharko dira —I. eranskinean deskribatzen dira—.

Ariketa horretan, gehienez, 40 puntu emango dira. Beharrezkoa izango da bi probak gainditzea eta gutxienez 20 puntu lortzea fase hori gainditu eta hurrengora igaro ahal izateko.

2. Biqarren ariketa

Nahitaezko eta baztertze ariketa izango da izangai guztientzat.

Elkarrizketa pertsonala eta/edo lan gaitasunen testa izango da, hautagaia deitutako lanpostuaren profilerara egokitzen den ala ez baloratzeko.

Ariketa horretan, gehienez, 30 puntu emango dira, eta gutxienez 15 puntu beharko dira gainditzeko. Izangaiek arlo hauetan dituzten trebetasunak ebaluatuko dira:

Gaitasun hauek ebaluatuko dira:

- Lidergoa eta pertsonen kudeaketa
- Ekimena
- Datuetatik abiatuta arazoak konpontzea eta erabakiak hartzea
- Antolatze gaitasuna

- Talde lana
- Komunikatzeko eta gaitzeko trebetasunak
- Bitartekotza eta gatazkak konpontzea
- Emozioen kudeaketa

Proba psikoteknikoak, psikometrikoak eta/edo nortasun probak ezin badira ebaluatu manipulazio eskalaren indizea altua delako, proba egin duen hautagaia baztertu egingo da, eta ez du hautaketa prozesuan jarraituko.

Kanpoko deialdiko probetan izena emateko eskabidea:

INDESA 2010 SLko ZUZENDARITZA-KUDEATZAILETZARENTZAT

Izen-abizenak: _____

IFZ _____

HELBIDEA _____

Telefono-zenbakia: _____

E-MAILA _____

Lehenengoa. Izena eman nahi dut Orientazio Departamentuko goi mailako teknikariaren lanpostua betetzeko kanpoko sustapeneko deialdian:

Agiri hauek erantsiko ditut:

1.-

2.-

3.-

4.-

5.-

Bigarrena. Baimena ematen dut nire datu pertsonalak tratatzeko, beharrezkoa bada deialdi honen helburua betetzeko.

Gasteiz, 202__ (e)ko _____ aren _____ (a).

Izangaiaren sinadura:

I. ERANSKINA - GAITEGIA.

ARLO OROKORRA

- Indarrean dagoen hitzarmen kolektiboa: ALHAO, 133. zk., 2024-11-22koa.
- Indesa 2010 SLren estatutuak.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. 1. artikulutik 18. artikulura, biak barne.

ARLO ESPEZIFIKOA

- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena.
- 2273/1985 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, minusbaliotasuna dutenentzako enplegu zentro berezietan buruzkoa.
- 469/2006 Errege Dekretua, apirilaren 21koa, lanbide jarduerarako laguntza unitateak arautzen dituen Enplegu Zentro Berezien egokitzapen pertsonal eta sozialaren zerbitzuen eremuan.
- 1368/1985 Errege Dekretua, uztailaren 17koa, enplegu zentro berezietan lan egiten duten ezinduen lan harreman berezia arautzen duena.
- 152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa.
- Lan orientazioa: kontzeptua, esku hartzeko mailak eta enplegurako orientazio ekintzak. Enplegarritasunaren kontzeptua eta balorazioa. Gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak. Enpleguko akordio pertsonala.
- Lan orientazioa eta desgaitasuna duten pertsonekin esku hartzeko programak.
- Hautagaien hautaketa: hautaketa tresnak, hautaketa prozesua eta gaitasunen araberako elkarrizketa.
- Txosten psiko-laboralak prestatzea.
- Ibilbide pertsonalizatuak eta garapen pertsonalerako eta lan garapenerako planak diseinatzea.
- Bitartekotza eta gatazkak konpontzea.

LANPOSTUA: Orientazio Departamentuko goi mailako teknikaria

SOLDATA: lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memoriaren arabera.

DESTINOA: Indesa 2010 SLren bulego nagusiak eta/edo Indesa 2010 SLren hainbat lantoki

SOLDATA: lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memoriaren arabera.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

Orientazio Departamentuko goi mailako teknikariaren lanposturako ekimena, antolatze gaitasuna, talde lanerako bokazioa eta komunikazio trebetasunak dituen pertsona.

ESKATZEN DEN NAHITAEZKO TITULAZIOA:

Psikologiako gradua edo lizentziatura

NAHITAEZKO LAN ESPERIENTZIA.

Gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatu beharko du lanbide orientazioko lanetan.

EGINKIZUNAK ETA ARDURAK

Eginkizun orokorrak:

- a. **Indesaren webgunean argitaratutako lanpostuen deskribapen eta balorazio memoriaren arabera (esteka):**
<https://www.indesa.eus/eu/gardentasuna/>

Lanpostuaren helburu nagusia desgaitasuna duten pertsonen laneratzea erraztea da, eta, horretarako, langileei eta enpresari laguntza ematea, egokitzapena, garapena eta ongizatea bermatzeko. Eginkizun hauek burutu behar dira —zerrenda erakusgarria da; ez da mugatzailea—:

- Arlo eta lanpostu bakoitzaren behar espezifikoekin bat datozen hautagaiak orientatzea eta hautatzea.
- Langileei harrera egitea eta lanpostuan duten integrazio mailaren jarraipena egitea.
- Giza baliabideen arloko proiektuak diseinatzen, ezartzen eta koordinatzen parte hartzea, antolamendua hobetzeko direnean proiektuok.
- Laneko gogobetetzea aztertze eta ondoriozko ekintza planak ezartzeko eta ikuskatzeko prozesuetan parte hartzea.
- Arlo guztien jarduna ebaluatzeko planen jarraipena egitea eta plan horietatik eratorritako prestakuntza beharrak hautematea eta koordinatzea.
- Ebaluazio eta prestakuntza sistemak hobetzeko proposamenak egitea.
- Ikasleen praktikak koordinatzea arlo guztietan.
- Laguntza unitatearen berezko funtzioak garatzea eta ezartzea.
- Laneratze zailtasun bereziak dituzten desgaituei egokitutako banakako laneratze ibilbideak garatzea.

- Lan jardueran alta ematen hasteko behar den dokumentazioa biltzea (indarreko desgaitasun ziurtagiriak, enplegu eskatzaile gisa izena ematea, etab.)
- Gizarte erakundeekin harremanetan jartzea eta harremanok mantentzea.
- Doikuntza pertsonal eta sozialen programa aplikatzea.
- Urteko txostenak eta memoriak (bestelako aldizkakotasuna izan dezakete) edo lanpostuan berezkoak diren txostenak egitea.
- Antzeko zereginak edo ezagutza teknikoak direla-eta agintzen zaizkion bestelakoak.

Lanpostua lortzeko baldintzak

- 1) Psikologiako gradua edo lizentziatura
- 2) Gutxienez hiru urteko esperientzia lanbide orientazioko zereginetan.

III. ERANSKINA - HAUTAKETA ORGANOA.

A. Hautaketa organoaren osaera:

- Lehendakaria: Indesa 2010 SLko giza baliabideen eta orientabidearen zuzendaria edo haren ordezkaria.
- Bokala: Indesa 2010 SLko finantza zuzendaria edo haren ordezkaria.
- Bokala: Indesa 2010 SLko orientazio teknikaria edo haren ordezkaria.

B. Idazkaria:

Hautaketa organoko idazkaria Indesa 2010 SLko idazkari kontuhartzailea izango da, edo haren ordezkaria. Ez du botorik izango.

C. Batzordearen ordezkariak

Enpresa batzordearen ordezkari bat egon daiteke, hitzarekin baina botorik gabe.